

## KAPITALAREN MINTEGIA

### 10. SAIOA

#### ZAZPIGARREN ATALA

#### XXIII. KAPITULUA. METAKETA KAPITALISTAREN LEGE OROKORRA.

##### **1. Lan-indarraren eskari gero eta handiagoa, metaketarekin batera, kapitalaren konposizioa berdin mantenduz.**

Marxek kapitalaren konposizioan izandako aldaketek langile klasean duten eragina azaltzen du jarraian. Horri dagokionez, bi kategoria bereizten ditu: batetik, kapitalaren *balio-konposizioa*, hau da, kapital konstanteari eta kapital aldakorrari dagokion kapitalaren proportzioa (balioan, edo sozialki beharrezkoa den lan-denboran, neurtuta); eta, bestetik, kapitalaren *konposizio teknikoa*, hau da, ekoizpen-bitartekoak, lan-indar bizia eta biak ekoizpen-prozesuan erlazionatzeko modua. Kapitalaren balio-konposizioa eta konposizio teknikoa harreman estuan daudenez (elkar determinatuzera iristen baitira), Marxek kapitalaren *konposizio organikoa* deitzen dio biek osatzen duten unitate errealarari.

Atal honetan, kapitalaz ari denean, Marx herrialde jakin bateko kapital sozialaz ari da, hau da, lurralde mugatu bateko kapital partikularren multzotik ondorioztatzen den ekoizpen-eredu orokorraz. Beraz, aurrerantzean kapitala kapital partikularren konposizio organikoen batez bestekotik ondorioztatutako harreman soziala izango da. Bada, Marxen arabera, kapital sozial horren hazkundeak (konposizio organikoa aldatu gabe; horregatik, kapital konstantearen eta aldakorraren arteko proportzioa berdin mantenduz) zati aldakorra handitzea dakar (lan-indarraren eskaria). Kapitalaren balorizazioak lan indar bizi handiagoa eskatzen du, eta eskaera horri erantzuteko, baliteke soldaten prezioak aldi baterako igotzea. Hala ere, lan-indar merkantziaren prezioaren igoerak ez du soldata-mendekotasuna desagerrarazten (horregatik aipatzen ditu Marxek oparotasun-garai horri dagozkion urrezko kateak).

Prezioen igoera horrek, kapitalaren metaketa oztopa dezakeenez, epe ertainean kontrako eragina sortzen du: lan-indar merkantziaren devaluazioa. Adibide horrek ekonomia politikoaren topiko zahar bati kontra egiteko balio dio Marxi, hau da, populazioaren bolumenak eta bere oszilazioak errentagarritasun produktiboa baldintzatzen dutenaren ustea (eta ez alderantziz). Baina Marxek kontrakoa demostratzen du: kapitalistak zenbat eta gainbalio handiagoa erauzi, orduan eta handiagoa izango da lan-eskaria (betiere kapitalaren konposizio organikoak aldatu gabe jarraitzen badu); eta kapitalaren balorizazio-ahalmena murrizten bada, kapitalistak bere plantilla murriztuko du edo soldatengatik gutxiago ordainduko du. Marxek dio balorizatzeko beharra, metaketa, lanaren ustiapen-maila eta soldaten igoera iragankorrak direla, azken batean, aldaketa demografikoak baldintzatzen dituzten elementuak.

## **2. Kapitalaren zati aldakorraren gutxitze erlatiboa, metaketak eta berarekin batera ematen den kontzentrazioak aurrera egin ahala.**

Kapitalaren osaera organikoa hainbat modutan alda daiteke. Ekoizpen-eredu kapitalistan, ekoizpen-indarren garapena kapitalen arteko lehiaren beharrezko baldintza da, eta modu horretan, ekoizpen-prozesua bizkortzen duten berrikuntza teknikoak eta sozialak bata bestearen atzetik gertatzen dira. Kapitalaren konposizio teknikoan egindako aldaketa horiek (hobekuntza zientifikoak, lan-prozesuaren diseinu eraginkorragoa, zaingo handiagoa, etab.) bere osaera organikoa alda dezakete. Hala gertatzen da, adibidez, lanaren produktibitate sozialean ematen diren aldaketekin. Lanaren produktibitate soziala handitzean, langile bakar batek (egindako lanaren kantitatea berdina izanik) kontsumitzen duen edo produktu bihurtzen duen ekoizpen-bitartekoen bolumena handiagoa izango da. Kapitalaren konposizio teknikoaren aldaketa hori (lan berdinegatik ekoizpen-bitarteko kopuru handiagoa) balio-konposizioan islatzen da: kapital konstantearen proportzioa aldakorrarekiko handitzen da. Beraz, hazkuntza erlatiboa da, aurretik existitzen diren kapitalaren elementuei eragiten diena.

Baina kapitalaren zati konstantearen hazkundera (hau da, ekoizpen-bitartekoen balio-magnitudearen hazkuntza) ez da ekoizpen-bitartekoen hazkuntza materialarekiko proportzionala. Ekoizpen-bitartekoen kantitate berrian ordezkaturako balioa ez da hazten lehengo magnitudearekiko ekoizpen-bitartekoak materialki hazi diren proportzio berean. Izan ere, lanaren produktibitate sozial gero eta handiagoak ekoizpen-bitartekoen bolumena handitzeaz gain, produktu-unitate bakoitzeko sozialki beharrezkoa den ekoizpen-denbora ere murrizten du. Beraz, bere balioa murrizten du. Marxek gehitzen du, gainera, zati aldakorraren murrizketa erlatiboak ez dakarrela murrizketa absolutua. Kapitalak esplotatzen dituen langileen kopuruak ere gora egin dezake, nahiz eta zati aldakorra konstantearen aldean gero eta txikiagoa izan.

Balio-konposizioan nahiz konposizio teknikoan, hau da, konposizio organikoan aldaketak eragiten dituzten kapital-metaketa prozesuak, Marxek *ekoizpenaren eskala hedatuaren* oinarria deitzen duenaren gainean gertatzen dira. Kapitalaren konposizio organikoan gertatzen diren aldaketa horiek, kapitalaren beraren ekoizpen hedatuan edo metaketan gertatzen direnak, ekoizpen-prozesuan gertatutako aldaketez nahiz kapitalaren kontzentrazio eta zentralizazio prozesuez elikatzen dira. *Kontzentrazioa*: kapitalista baten ekoizpen-bitartekoen eta lanaren gaineko agintearen hazkuntza (kapital partikular baten metaketa propioa eskala handitutako produkzioaren oinarriaren menpe). *Zentralizazioa*: kapitalista batek aurretik zeuden kapital indibidualak bereganatzea edo bere kontrolpean dagoen ekoizpen-prozesuan txertatzea. Kapital indibidualak kapital partikular handiago batean zentralizatzea da aurrerapen sozialearen eredu kapitalista bera. Eredu horrek kapitalaren kontzentrazio-prozesua bizkortzen du erritmo susmaezinean, lanaren ekoizpen-gaitasunak areagotzen ditu eta kapital aldakorraren eskaria murrizten du zentralizazioak eragindako ekoizpen-adarretan.

## **3. Gainpopulazio erlatibo baten edo erreserbako industria-armada baten ekoizpen progresiboa**

Kapitalaren metaketa, alde batetik, handitze kuantitatibo bat da, eta, bestetik, bere osaeraren etengabeko aldaketa kuantitatibo bat: proportzio aldakorraren murrizketa konstantearekiko. Termino erlatiboetan: kapitala metatzean, lan-eskariak behera egiten du. Termino absolutuetan, aldiz, kapital globala haztean, haren zati aldakorra ere hazi egiten da, baina proportzio etengabe beherakorrean.

Lan-eskariaren beheranzko joera (hau da, bere murrizketa erlatiboa) kapital sozial osoaren zati aldakorraren hazkunde absolutua (hau da, kapitala metatu eta hedatzearen ondoriozko lan-eskariaren hazkundera), baino handiagoa den neurrian, kapitalaren metaketak etengabe sortzen du kapitalaren balorizazio beharretarako beharrezkoa ez den langile-populazioa. Marxen arabera, "langile-populazioak, berak sortutako kapitalaren metaketarekin batera eta gero eta tamaina handiagoan, bere gehiegizko erlatiboaren bitartekoak sortzen ditu". Bada, gainpopulazio erlatiboa kapitalaren metaketa-prozesuaren emaitza zuzena da, baina, aldi berean, gainpopulazio erlatibo horrek metatze-prozesua bera sustatzen du. Beraz, haren ondorio eta printzipio partikularra da. Zergatik? Gainpopulazio erlatiboak kapitalistaren begietara *erreserbako industria-armada* bat osatzen duelako: ustiagarria den langile-masa zabal bat, kapitalaren balorizazio-beharrek hala eskatzen dutenean, (adibidez, merkatuak hedatzean), biztanleriaren benetako gorabeherak alde batera utzita. Eta ez horregatik bakarrik: erreserbako industria-armadak etengabeko presioa egiten dio, lehia dela eta, lanean dagoen langile klaseari. Presio horrek, soldata debalatu eta langileen eskakizunak murrizten dituena, kapitalista aberastu eta langile-klasea prekarizatu besterik ez du egiten.

Soldata-mendekotasunaren egituraren azpian, erreserbako industria-armada elementu sozial bat da, langile klasearen presioa bere burura bideratzen duena, kapitalistengan egin beharrean. Langileen arteko lehia haien bizirauteko beharrenden ondorio zuzena da, batez ere behar hori politikoki antolatuta ez dagoenean. Horregatik dio Marxek gainpopulazio erlatiboa "lan-eskariaren eta -eskaintzaren legearen mugimenduaren funtsa" dela.

#### **4. Gainpopulazio erlatiboaren hainbat existentzia forma. Metaketa kapitalistaren lege orokorra.**

Marxen arabera, erreserbako industria-armadak hiru forma desberdin ditu: fluktuatzailea, latentea eta geratua. *Fluktuatzailearen* parte dira industria guneetako lan-eskaera gorabeheratsua asetzen duten langileak, hau da, lanpostuetara erakartzen direnak kapitalaren balorizazioak hala eskatzen duenean uxatzen diren erraztasun berarekin. Marxen arabera, langileen fluktuazioak, landatik hirira, adibidez, "gainpopulazio latente konstantea" aurreuposatzen du. Gainpopulazio *latentearen* parte dira lan bila dabiltzanak, lanik ez dutenak baina lan egin dezaketenak. Eta, langile-gainpopulazioaren zati *geratua* osatzen dutenak daude ere: gainpopulazio erlatiboaren zati aktiboa dira, hau da, lan egiten dute, baina oso modu irregularrean. Marxek dio soldata txikiengatik lan gehien egiten dutenak direla.

Azkenik, Marxek, bere ustez erreserbako industria-armadaren mailarik baxuena dena aipatzen du. Hemen, "txirotasunaren eremuan" bizi den langile klasearen zatiaz ari da. Alde batetik, lumpenproletalgoa dago (alemaniarretik, *Lumpen*: zarpaila edo zatarra, trapu zikinei edo oihalei buruz; eta, alemaniarretik ere, *Lump*: zitala, lotsagabea). Eta, bestalde, (1) txirotasunean bizi direnak eta lan egiteko gai direnak daude, (2) umezurtzak eta pobreen seme-alabak eta (3) lanerako ezgaituta daudenak (gaixoak, zahartzarora iritsi direnak, industriak mutilatutakoak, etab.). Oro har, ezdeusak dira kapitalaren balorizazio beharrak asetzeko, baina bere metaketa prozesuaren zuzeneko produktua.

Marxek dio, zenbat eta handiagoa izan aberastasun soziala edo kapitalaren metaketa-erritmoa, orduan eta handiagoa izango dela proletalgoaren magnitude absolutua (aktiboa), baita lanaren produktibitate soziala ere. Baina lanean dagoen langile klasearen zatiarekin batera hazi egiten da erreserbako industria-armada; modu horretan, bat handitu ahala, bestea handiagoa izango da. Eta hemen lehenago esandakoa hartu behar da kontuan: kapital aldakorraren hazkunde

absolutua txikituz doan proportzionaltasunean gertatzen dela. Horrek zera inplikatzen du: erreserbako industria-armadaren hazkunde erlatiboa, kapital aldakorraren hazkunde absolutuarekiko handituz doan proportzionaltasunean ematen da. Kapitalaren metaketak eta aberastasun sozialaren handitzeak, beraz, txirotasuna eta miseria orokortua sendotzea dakar (langileen arteko lehiagatik gertatzen dena). Txirotasunerako joera horrek aldaketak paira ditzake. Joera historikoa da, beraz: hau da, indar determinatzailea da, ez determinatua. Marxek horren inguruan ohartarazten digu: "*Hau da metaketa kapitalistaren lege orokorra, absolutua. Beste lege guztiak bezala, bere aplikazioan moldatu egiten da zenbait zirkunstantziaren ondorioz, zeinen azterketak ez duen interesik hemen*"(egilearen letra etzana).

##### **5. Metaketa kapitalistaren lege orokorraren ilustrazioa.**

XXIII kapituluaren azken atal honetan, Marxek aurreko ataletan teorikoki garatutakoaren euskarri gisa balio dion azalpen historiografiko bat egiten du. Modu horretan, esandakoa irudizatzen du eta bere tesiak adibide historikoekin sendotzen saiatzen da. Bosgarren puntua osatzen duten azpiatalak honako hauek dira: a) *Ingalaterra, 1846tik 1866ra*; b) *Britainiar langile klase industrialaren gaizki ordaindutako geruzak*; c) *Herri nomada*; d) *Krisiaren eragina hoberen ordaindutako langile klasearen zatian*; e) *Britainiar nekazal-proletalgoa*; f) *Irlanda*. Amaitzeko, esan behar da azpiatal horiek ez direla aurretik azaldutakoaren jarraipen hutsa datu historiografikoen bitartez; izan ere, garrantzi handiko informazioa gehitzen da, baita garrantzia politikokoa ere (adibidez, "d)" azpiatalean).